



## **AURREKONTUAK GAUZATZEARI BURUZKO ESTADISTIKA**

**Ohar metodologikoa**

**2019**

## ESTADISTICA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA

### 1.- Aurkezpena

“Aurrekontuak gauzatzeari buruzko estatistika” estatistika-eragiketa ofiziala da, eta honako izen honekin azaltzen da 2018-2022ko Euskal Estatistika Planean: 153016 eragiketa.- “Aurrekontuak gauzatzeari buruzko estatistika”. Aspalditik egiten da estatistika-eragiketa hori, 1994. urteko Estatistika Programan dagoeneko azaldu baitzen.

Ekonomia eta Ogasun Saileko Estatistika Organoa da erakunde arduraduna, eragiketaren fase guztien arduraduna dela.

Bere helburua Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorraren eta foru-aldundien dirusarrera

eta gastuen aurrekontuak gauzatzeari buruzko informazioa agiri bakar batean elkartzea da.

Bertan hiruhilekoz hiruhileko azaltzen da aipatutako administrazioaren (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) atal diren eta enpresa-izaera ez duten erakunde-unitateen jarduera.

Erakunde bakoitzaren eta erakunde guztien jarduerari buruzko informazioaren aurkezpena jarduera publikoaren eta bere bilakaeraren eragin ekonomikoa balioztatu ahal izateko egiten da.

Erakunde-eragile horien jarduera ekonomikoa zorrotz dago islatuta, administrazioko erakunde autonomoak eta enpresa-sektore publikoa baztertuta baitaude. Erakunde eta enpresa horiei egindako transferentziak jasotzean, kontuan izan da diru-sarrera eta

gastuen zifra agregatu eta bateratuek zehatz azaltzea Administrazio Publiko

Autonomoaren zati honen jardueraren neurria eta bilakaera.

Helburua da Euskal Administrazio Autonomoaren (Eusko Jaurlaritza eta forualdundiak)

maila horietako administrazio publikoen jarduera ekonomikoaren egoera

zein den jakitea. Erakunde horien jarduerari buruzko informazioaren aurkezpena

jarduera publiko horren eta bere bilakaeraren eragina balioztatu ahal izateko egiten da.

Hiru hilean behin, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien diru-sarrera eta gastuen

gauzatze-maila biltzen da, horien artean egiten diren diru-sarrera eta gastuen

baterakuntzak kontuan hartuta.

Argitalpenaren edukiak erakunde-maila ezberdinen informazio agregatu eta bateratua

eskaintzen du, bai eta erakunde bakoitzari dagokiona ere. Horretarako, gastuaren

gauzatze-maila, diru-sarreraren gauzatze-maila, urtetik urterako erkaketak eta hiru

hileko bilakaera erabiltzen dira. Bai gastuak eta baita diru-sarrerak ere, aurrekontuen

terminologian sailkapen ekonomiko esaten zaionaren arabera aurkezten dira.

Gaur egun hiru hilean behin hedatzen da Ekonomia eta Ogasun Sailaren Interneteko

web gunearen bitartez. Horretarako, arestian aipatutako taulen arabera egin eta hedatzen

da informazioa.

### **Ohar metodologikoak**

Emaitzak hiru hilean behin kalkulatu eta argitaratzen dira, honako atal hauek dituen agiri batean:

1.- Hitzaurrea, Ohar metodologikoa eta Aurkibidea

2.- Eusko Jaurlaritzaren hiru hileko gauzatzeari buruzko datuak, eta bilakaera historikoa.

3.- Foru-aldundien hiru hileko gauzatzeari buruzko datuak, eta serie historikoa.

4.- Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien hiru hileko gauzatzeari buruzko datu bateratuak.

Agiria PDF formatuan argitaratzen da web gunean eta, halaber, harpidedunei posta elektronikoaren bitartez bidaltzen zaie eguneratu izanari buruzko jakinarazpena.

Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak eskaintzen dira.

### **Aurkezteko egitura eta emaitzen argitalpena**

Hiru hileko datuak aurrekontuak gauzatzeko faseei jarraituz aurkezten dira: Gastuen kasuan Aurrekontu eguneratua, Aitortutako betebeharrak eta Egindako ordainketak. Diru-sarreraren kasuan Aurrekontu eguneratua, Aitortutako eskubideak eta Egindako diru-sarrerak.

Lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da, ez dago lurralde-banaketarik.

Gastu eta diru-sarreraren kapitulutan bananduta aurkezten da informazioa, erakunde partaideek euren aurrekontuak egitean erabili ohi duten sailkapen ekonomikoaren arabera.

Jarraian azaldu diren 15 taulatan banakatuta aurkezten da informazioa, honela multzokatzen dela informazioa:

#### **-Eusko Jaurlaritza**

- Gastuen aurrekontuaren gauzatzea, kapituluka
- Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzea, kapituluka

- Aurrekontuetako muntak.
- Gastuen aurrekontuaren gauzatzearen bilakaera, kapituluka
- Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzearen bilakaera, kapituluka

**-Foru-aldundiak bateratuta**

- Gastuen aurrekontuaren gauzatzea, kapituluka
- Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzea, kapituluka
- Aurrekontuetako muntak.
- Gastuen aurrekontuaren gauzatzearen bilakaera, kapituluka
- Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzearen bilakaera, kapituluka
- Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzearen bilakaera (1. eta 2. kapituluaren banakapena).

**-Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak bateratuta**

- Likidatutako betebeharrak eta eskubideen laburpena
- Gastuen aurrekontuaren gauzatzearen bilakaera, kapituluka
- Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzearen bilakaera, kapituluka
- Aurrekontuetako muntak.

Gauzatzeari buruzko tauletan milaka eurotan azaldu dira zenbatekoak aurrekontukapituluen

arabera, gauzatze-fase ezberdinetan, uneko hiruhilekoari eta aurreko urteko

hiruhileko berdinari dagokienez. Gauzatzearen ehunekoak eta urterik urterako aldaketatasak

ere azaltzen dira.

Bilakaerari buruzko tauletan azken urteetako datuak azaltzen dira, kapituluka; halaber, azken bi urteak hiruhilekoka daude banakatuta. Milaka eurotan aurkezten dira datuak, bai eta urterik urterako aldaketak ere.

Betebehar eta eskubideen laburpenean Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien uneko hiruhilekoko datu bateratuak aurkezten dira, bai eta urterik urterako aldaketak ere.

Hiru hileko datuak aurrekontuak gauzatzeko faseei jarraituz aurkezten dira: Gastuen kasuan Aurrekontu eguneratua, Aitortutako betebeharrak eta Egindako ordainketak.

Diru-sarreraren kasuan Aurrekontu eguneratua, Aitortutako eskubideak eta Egindako diru-sarrerak.

Lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da, ez dago lurralde-banaketarik.

Informazioa Internet bidez hedatzen da, Eusko Jaurlaritzaren web gunean (Euskadi.eus).